




TOKIKO ARTOAREN HIZTEGIA
ATAUN

Lan honetako hitzak Amilleta, Andresene, Errondo, Espilla, Kantxillu, Muntxota, Okaizti, Otazil eta Txulo baserrietatik jaso dira. Eskerrik asko denei ondare hau bizirik mantentzeagatik.

Era berean, eskerrik asko Aitzoli eta Inharri hau guztia prestatzeko emandako laguntzagatik.

Inspirazio iturria: Tokiko Artoaren Hiztegia – Basaburu Ttikia, Baztan. Bortziriak, Malerreka eta Urdazubi.

Beste iturriak: Juan Arin Dorronsoreoren idazlan bilduma.

Laguntzailea: Ataungo Udala

Hitzaurrea

Herriko baserrietatik jasotako hitzez osatu dugu hiztegi hau. Hemen jaso ditugun hitzak ez dira lan etnografiko edo linguistiko akademikoki zorrotz eta sistematiko baten emaitza. Ziur sartu beharreko guztia ez sartu izana, baina espero dugu orri hauek irakurtzeak herrian artoaren bueltan izan den ondare kultural aberatsa kontuan eta estimuan hartzeko balio izatea.

Pili Eskisabel Izagirre

2026-05-15

ARTOA

Gramineoen familiako landarea dugu artoa, zurtoin tente eta lodia du eta heltzen denean 2 metro inguruko garaiera hartzen du. Hosto handiak eta lantza formakoak ditu eta artaburua da bere fruitua. Landare bakoitzak artaburu bat edo bi ematen ditu eta bere aleak leunak eta kolore ugaritakoak izaten dira – gorriak, horiak, beltzak...



Duela hamabi mila urte inguru hasi ziren ekoizten Mexikon eta egun, munduko zerealik landatuena da giza zein animalien kontsumorako erabiltzen delarik.

Artoa udaberrian ereiten da, hostoak irtetean. Bakarrik zein indabarekin batera sartu ohi da bi landare hauek duten elkartze onuragarria medio. Uzta berriz udazkenean jasotzen da, San Martin inguruan, behin artaburuak makurtzen hasi eta landarea ihartzen denean. Ondorenera artaburuak ganbaran jaso eta urtean zehar kontsumitzen dira.

XVI. mendean Ameriketatik ekarri zenetik oso garrantzitsua izan da Euskal Herriko isuri Atlantikoko elikaduran zein kulturaren. Artoaren aurretik garia eta artatxikia egiten ziren

gurean, baina artoak uzta oso ugariak ematen zituela eta – gariak halako bost esan ohi da – pixkanaka artoa zereal hauek ordezkatzeko joan zen. Gosete garaietan ere hauei aurre egiteko oso garrantzitsua izan zen.

Azken urte hauetan, ordea, arto-ekoizpena erabat apaldu da gure inguruan. Horren ondorioz, mende hauetan guztietan gure lurretan ibarrez ibar eta herriz herri bertakotzen joan diren aldaerak desagertzen ari dira. Inguru hauetara ongi egokitutako aldaerak dira hauek, interes handikoak bioaniztasunaren eta beren ezaugarri organoleptikoen – aroma, zaporea, kolorea – ikuspegitik.

Artoaren inguruan hainbat esaunda ere entzuten dira gure herrian:

*Orri irtete artoa ereite,
Orri erortze garia ereite,
Eta San Lorentzotan arbie ereite.*

Artoaren hazkundearen inguruan honako hau:

Artoa ona izango bada, San Juanetako belea izkutatzeokone hazi behar da.

Aspaldiko beste kontu zahar batek berriz honela dio:

*Garie oso landare harroa izanik behin hala esan omen zon,
“Ni bezelako belarrik ez dek!”
eta artoak erantzun,
“Ni naizen tokin goseik ez dek!”*

A

Ahie Irina egosiz – *artirine* edo ogirine – egiten den jateko orea. Hau mehea edo lodia izan daiteke.

Artaberdea Oraindik berde dagoela moztu eta ganaduari jateko ematen zaion arto landarea. *Artoa bakantzerakoan* kendu diren landareei ere *artaberdea* deitzen zaie.

Artaburue Artoaren fruitua.

Artagarea Arto landarearen lore arra. Landarearen goialdean ateratzen den lorea da eta irekitzean hauetatik ateratzen den polenak, haizearen laguntzaz, polinizatzen ditu hostoaren altzoan hazten diren artaburuetako lore emeak.

Arto bizarra lehortzen eta *Artaburue* formatzen hasten denean, artaburuen goialdetik moztu eta *ganajan* edo ganaduarentzat bazka gisa aprobetxatu ohi da. Mozketa honek landareari ere onurak dakarzkio, altuera gutxitzearekin haize boladetatik babesago geratzen baita.

Artajorra Artoa jorratzeko ekintza. Arto landarea erne eta pixka bat kozkortzean aitzurrarekin jorratzen da, inguruko

belarrak kenduz eta landareari lurra emanaz. Arto sail handietan senideak edo auzokoak elkartzen ziren lan hau egiteko: “*gaur gurea eta bihar zuena*”.

Artalastoa Ihartutako arto landarea.

Artalea *Artaburuko* ale bakoitza. Leuna eta gorri, hori zein beltz kolorekoa izan ohi da.

Artalorea ik. *Artagarea*.

Artarrie Errotan *artoa* *ihotzeko* erabiltzen den errotarria.

Artasoraa, Artosaile Artoa egiten den lursaila.

Artatxukulue ik. *Artoa (opila)*.

Artazuriketa *Artaburua* hau biltzen duten hostoetatik bereizteko ekintza. Artaburuak *txuikin* eta guzti bildu eta ganbaran jasotzen dira lehenik, ondorengo egunetan senideak edo auzokoak elkartu eta artazuriketa egiteko. Lana eta festa uztartzen zuten bilkura horietako bat izaten zen hau, txandaka egiten zena baserriz baserri. Artazuriketak ere ahoz ahoko kontu transmisioa

ahalbideratzen zuen, bilkura hauetan hamaika kontu partekatuz harremanak sendotzen ziren.

Artirine Errotan *artoa ihotzean* lortzen den irina. Taloak, *Morokile* zein *Artoa (opila)* egiteko baliatzen da.

Arto amerikanoa edo hibridoa F1 arto aldaera hibridoa, produktibitate zein erresistentzia handikoa. XX. mendearen bigarren erdian sartu zen Euskal Herrira, tokian tokiko arto aldaerak ia desagerpeneraino eramanez. Landare hibrido hau bereziki sendoa da, haize bolada bortitzen aurrean nekez etzaten dena. Hala ere, arto mota honen hazia alperrik gordeko dugu, bertatik ateratako landareek *artaburu* txikiak eta ia *artalerik* gabeak emango dituztelako. Honela, arto hibrido hau darabilen baserritarrak hazia urtero erosi beharko du, hazi hauek produzitzen dituzten enpresen menpe geratuz.

Arto bilketa Artoa biltzearen ekintza. *Artaburuak* etzaten hasi eta landarea ihartzen denean bildu ohi da artoa, San Martin inguruan.

Arto bizarra Artoaren lore emeen estigma mordoa, *artaburuaren* puntan dagoena. Garai batean infusioan hartzeko sendagai bezala edo zigarroak egiteko erabili ohi zen.

Arto malotea Arto landarearen zurtoin edo makila. Ihartu ondoren, *igitaia*rekin moztu eta ganaduen azpietarako erabiltzen zen.

Arto metak Arto landareak *artaburu* eta guzti lehortzeko erabiltzen zen forma konikoko multzoa. Meta egin nahi zen lekuan makil bat jartzen zen eta inguruan moztutako arto landare osoak goiko aldetik berari lotuta. Era horretan landareak zein buruak ihartzen ziren eta 25-30 egun igaro ondoren, landarea bere horretan ganbarara jasotzen zen, ondorenera *artaburuak* kentzeko.

Arto ogie ik. *Artoa (opile)*.

Arto orrie Arto landarearen hostoa, luzea eta lantza formakoa.

Arto txikitua Oiloei eta aziendei jateko eman ohi zaien *artale* txikitua. *Artaburu* kaxkarrenak erabili ohi ziren honetarako.

Arto zopak *Artoa (opile)* fin-fin ebaki eta esnetan egosiz egiten den jatekoa.

Arto zuztarra *Arto malotearen* behealdean ikusten diren zuztarrak. Uzta bildu ondoren, lurrean utzi ohi dira hurrengo

udaberrira arte eta berriro lurra *prantatzerakoan* puskatu eta bertan geratzen dira, lurrarekin bat eginez.

Artoa (opile) Labean erretzen den *artirin* orrea, 3-5 zentimetroko lodiera duena. Baserri askotan beheko suan erretzen zen, gauean behin garra itzalita orrea aza-hosto batekin babestu eta brasaz inguratuaz. Hurrengo goizerako egosia egoten zen eta artazopak egin ohi ziren.

Artoa aletu *Artaburua zuritu* ondoren aletu egiten da, *artalea koskoletik* askatuz. Era ezberdinetan egin daiteke lan hau: aletu nahi den *artaburua koskol* batekin igurtziz, burdinazko tresnak erabiliz – laia, *talaburnia* –, eskuzko makinekin, etab.

Artoa aletzeko makinea Manibela bati eraginaz *koskolak* eta *artalea* bereizten dituen tramankulua.

Artoa sartzeko makinea Artoa eta indaba sartzeko erabiltzen zen egurrezko tramankulua. Arrondo eta Astiarra auzoetan bazen horrelako makina bana, txandaka auzoko baserrietan erabiltzen zena.

Artoa bakandu Soberan dauden arto landareak ateratzearen ekintza. Artoa landatzean, badaezpada behar

dena baino hazi gehiago sartzen da ipindoian edo errenkadan, askotan ez baitira hazi guztiak ernetzen.

Artoa ein, artoa sartu Artoa ereitearen prozesua. Hau hostoa irteteen egiten da – San Isidro inguruan – *artalea ipindoietan* edo errenkadan sartuaz. *Artasoroko* lurra *prantau* ondoren, eskuz sartzen zen kasuan, *markea* izeneko tresna bi zentzutan pasatzen den artoa sartuko den *ipindoiak* markatzeko. Normalean artoa eta indaba elkarrekin sartzen dira *jorraie* edo *paleta* erabiliz – lau *artale* kanpoaldean eta bi indaba-ale barruan.

Artoa erne Ereindako hazitik sortutako landarea lur azalera bistaratzea.

Artoa galbaittu Artoa *galbaietik* (galbahetik) pasatzeko ekintza. *Artaburuak* aletu ondoren, *artaleak galbaietik* pasatzen dira alea eta bestelakoak bereizteko.

Artoa iho Errotetan *artalea* irin bihurtzeko prozesua.

Arton aiñoa, añoa Arto landarean onddoek eragindako gaixotasuna. Gaitz honek jotako landareak ez du *artabururik* ematen.

Aspile Ganaduari *orrea* emateko erabiltzen zen egurrezko kaxa moduko ontzia.

B

Baie Hondoan sarea duen ontzi moduko egurrezko lanabesa, *artirina* fintzeko erabili ohi dena.

Baietik pasau *Artirina* baietik pasatzeko ekintza, *artirinetik zaie* bereiztuz.

Besarea Hainbat hortz eta bi eskuleku dituen lurra arrotzeko lanabesa. *Artasoroan* errenkaden artean pasatzen zen aurretik astoak tiratuta.

E

Errota Alea ehotzeko tresna eta bera dagoen eraikina. Funtsean harri finko batez eta urak birarazten duen beste harri batez osatzen da, eta hauei *errotarri* deitzen zaie. *Errotarri* hauek barnealdetik testura zimurra dute aleak ondo ehotzeko, eta ekoizten den irina kanporatzeko, berriz, kanal moduko batzuk izaten dituzte. Alea ehotu ahala, *errotarriak* ere gastatzen eta leuntzen joaten dira eta aldian behin pikatu beharra egoten da berriz ere jatorrizko testura zimurra eta kanalen egitura berreskuratzeko.









Errotarri ezberdinak baliatzen dira ehotu nahi den alearen baitan, honela garia ehotzeko erabiltzen den errotarriari *ogiarri* deitzen zaio eta *artoa* *ihotzeko* erabiltzen denari berriz *artarri*.

Ataungo erroten inguruan Joxe Bikuña herrikideak pasarte hau kontatzen du:

XV. mendera arte ez zen errotarik Ataunen eta bertakoak inguruko herrietara joaten ziren alea ehotzera. Hutsune hori arazo larria zen herritarrentzat eta Ataungo kontzejuak etsai zuen Lazkaoko jauntxoarekin erdibana bi errota eraikitzea hitzartu zuen: Larruntza errota San Gregorion – ola batekin batera – eta Elizalde errota San Martinen. Baldintza bezala errota gehiago ez egitea eta Ataungo uztak errota hauetara eramateko eskusibitatea adostu ziren. Bi errota hauek herritarren beharrak ondo ase zituzten urte batzuetan.

Ordura arte, orde, garia eta artatxikia ziren bakarrik inguru hauetan eta XVI. eta XVII. mendeetan artoa sartzen hasi zenean errota gehiagoren premia sortu zen. Behar hau asetzeko asmoz, 1667an Larruntzako errotatik pasatako, urarekin funtzionatzen zuen bigarren errota bat jarri zen martxan, Errotatxo. Baina errotek oraindik ere lanez gainezka jarraitzen zutenez, indarrean zegoen eskusibitate hitzarmena bertan behera utzi eta Ataun 9 errota martxan edukitzera iritsi zen.

Errotari hauek produzitutako irinaren %10 hartzen zuten *lakea* deituriko ordainsari gisan. Honen inguruan esan, baserritarrek susmo txarra eduki ohi zutela errotariez,

hauek gehiago hartzen zutelakoan. Astoak errotatik bueltan baserrira behar baino arinago joaten omen ziren.

Juan Arin Dorronsororen lanak biltzen dituen liburuan, berriz, ondorengo datuak agertzen dira Ataungo erroten inguruan:

1702. urtean Ataungo erroten eta haietan zeuden harrien zerrenda:

- Erroiondoko errotan bi harri ziren, bat gariarena eta bestea artoarena.
- Larruntzako errota handian harri bana gari zein artoarentzat.
- Larruntzako errota txikian – gaur egun *Errotatxo* bezala ezagutu eta tarteka martxan jartzen dena – harri bakarra, hau gariarena.
- Elizaldeko errotan, bi harri gariarentzat eta bakarra artoarentzat.

1770eko erregistro batean Ataunen 4320 fanega gari eta 5600 arto bildu zirela adierazten da. XIX. mende hasierako beste agiri batean, berriz, Aitzarten zeuden sei errotarrietatik bost artoarenak eta bakarra gariarena zirela adierazten da, artoaren gailentzearen testigu.

Errotarri Errotan aleak ehotzeko erabiltzen den harria.

G

Galbaie Hondoan sare bat duen ontzi moduko egurrezko lanabesa, *artaleak* nahiz bestelako aleak garbitzeko erabili ohi dena.

Ganbara Baserrietako teilatupeko solairua, aleak zein beste hainbat labore gordetzeko erabiltzen dena. Leku ondo aireztatua eta freskoa izaten da.

Gerriko poltsa Artoa eta indaba sartzerakoan hauen aleak bereiztuta eramateko bi poltsikoko mantal modukoa. Gerrian lotuta eramaten zen.

H

Hazitako artoa Hurrengo arto uztan hazi gisa erabiliko den *artalea*. *Artale* hauek hautatzeko, lehenik *artaburu* “ederrenak” aukeratzen dira. Honetarako, baserritar bakoitzak bere irizpideak ditu, ohikoenak ondorengoak izanik:

- *Artaburuaren* betetasuna – *artaburua artalez* ondo betea izatea.
- Tamaina handiko *artaburuak* zein *artaleak* izatea.
- *Artaburuak artale* txikikoak izatea – oiloek batere txikitu gabe jan ahal izateko zein makinarekin *artaburua* aletzean berauek haustea ekiditeko.
- *Artaburua* eman duen landareak haizearekiko zuen erresistentzia.

Ondorenera, hautaturiko *artaburu* hauetako erdialdeko *artaleak* soilik erabiltzen dira ereiteko, bi muturretako aleak baztertuaz.

I

Igitaie Kako formako metalezko xafla zorrotz batez eta egurrezko eskutoki labur batez osaturiko lanabesa. *Artasoroan arto malotak* mozteko zein beste hainbat lanetarako erabili ohi da.

Imie Aleen kantitateak neurtzeko erabiltzen den egurrezko kaxa. Anegaren laurdenaren baliokidea. Imi bat, ~12kg gutxi gorabehera.

Ipindoie Artoa eta indaba sartzeko lurlean egiten den zulotxo.

J

Jorraie Aitzur txikia, artoa eta indaba sartzeko erabiltzen dena.

K

Koskola *Artaburuaren* bihotza, behin alea kendu ondoren geratzen dena. Sua pizteko erabili ohi da eta umeen jolasetarako.

Koskola apustue *Koskolak* lurlean lerrokatu eta hauek joan- etorrian banan-banan jaso zein jarriz egiten den jolasa.

Kusoa Soroan hazia ereitean txoriak izutzeko jarri ohi den giza itxurako panpina. *Artasoroetan* batez ere beleak uxatzeko erabili ohi da.

L

Laka Errotariak eginiko lanaren ordainez hartzen zuen irinaren partea. Hau %10 izaten zen. Baserritarren artean ohikoa zen errotariak adosturiko laka baino gehiago hartzen zuen susmoa, errotatik bueltan astoa aise joaten zela eta baserrirantz.

Lakarie Aleen kantitateak neurtzeko erabiltzen den egurrezko kaxa. Lakari bat, ~3 kg gutxi gorabehera.

Lastaie Gainean lo egiteko erabiltzen zen koltxoi moduko zakua. Hauek *txuikinez* beteak izaten ziren eta lo egin aurretik ondo astindu beharra izaten omen zen.

M

Maixorrie/Maizorrie ik. *Arto orrie*.

Markea Artoa lurlean non sartu behar den markatzeko erabiltzen den hiru edo lau hortzeko egurrezko lanabesa. *Artasoroan* zehar bi norabide perpendikularretan pasatzen da tresna bere hortzekin lurlean lerroak markatuz eta lerro hauek elkar mozten duten puntuetan joango da *ipindoie*.

Maxalastoa ik. *Txuikine*.

Morokile *Artirinarekin* egiten den *Ahie*.

Muittea *Artaburu* galdua, *artalerik* gabekoa

O

Orramaie *Orrea* egiteko erabiltzen den mahia.

Orrea Irinari ura nahasiz – *artirinari* zein ogirinari – egiten den orea.

P

Palea Ilargi-erdi formako egurrezko lanabes txikia, artoa eta indaba sartzeko erabiltzen dena. Normalean zulo txiki bat izaten zuen bere gordelekuan iltze batetik zintzilikatzeko.

Pelakie Aleak bildu zein maneiatzeko erabiltzen den aitzur zabal moduko egurrezko tresna.

T

Talaburnie *Taloe* su bajuen erretzeko erabiltzen den burdinazko tresna.

Taloe *Artirinarekin* egindako orrea zabalduz egiten den opil borobil eta mehea. *Orrea*, *artirina* ur beroarekin eta gatz piska batekin nahastuz egiten da. Ondorenera, bertatik zati bat hartu, hau borobildu, eta magalean jarritako *talo paleta* gainean esku ahurrarekin *orrea* joz taloe ahalik eta finen zabaltzen da. Azkenik, hau bi aldeetatik plantxa baten gainean erretzen da edo *talaburnia* erabiliz beheko suan. Erretzerakoan taloe puztea hau ondo egina dagoen seinale izaten da.

Talo aspile *Taloak* egiteko *orrea* lantzeko erabiltzen den egurrezko kaxa.

Talo palea, talo palettea Bere gainean *taloak* zabaltzeko erabiltzen den egurrezko lanabesa.

Talo ta esnea Katilu batean dugun esne berora taloe zatituta botaz egiten den jatekoa.

Taloe jo edo zabaldu *Artirin orrea talo paleta* gainean eskuz joz zabaltzeko ekintza. Normalean *talo paleta* magalean hartzen da honetarako.

Talomantenu *Taloak* erre ondoren hauek egiten bukatzeko edo bero mantentzeko beheko sutondoan jartzen zen burdinazko tresna.

Txukine, Txukine, Txuukine, Txurikine *Artaburua* biltzen duten orriak. *Lastaiak* egiteko erabiltzen ziren. Orri finenak, berriz, erretzeko paper gisa ere erabili ohi ziren.

Z

Zaie Artirina *baietik* pasatzean honi bereizten zaion gaia.

Zaperoa Zaie, artirine, garagaririne, etab urarekin nahastuz egiten den orrea, eta abereei (oilo, txerri...) jaten emateko erabiltzen dena.

Majina bat erabilera eman diogu artoari Ameriketatik ekarri zenetik: **Arto bizarra** infusioan hartzeko sendagai diuretiko bezala edo zigarroak egiteko, **Txuikina** lastaiak egiteko eta orri finenak zigarro paperetarako, **Maixorrie** eta **Artagarea** ganaduarentzat – ganajana – , **Artomalotea** ganaduaren azpiak egiteko, **Koskola** sutarako eta umeen jolasetarako, **Artalea** iho ondoren ganaduaren eta pertsonen elikagai gisa, taloak egiteko bereziki, ta beti ere, **artaburue aldamenekoa!**

